



ELKAR-EUSKARA

Hizkuntza Laguntzarako Zerbitzua
Servicio de Apoyo Lingüístico

HIZKUNTZA ARLOKO LAGUNTZA ZERBITZUA

ELKAR-EUSKARA

Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa - KONFEKOOP bazkide diren enpresa kooperatiboetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesuarekin konprometituta dago.

Enpresa asko dira hizkuntza-normalizazioko prozesu horri ekin diotenak. Dena den, gure ustez ezinbestekoa da neurri txikia duten kooperatibei laguntzea ematea eta, horretarako, KONFEKOOPek **ELKAR-EUSKARA hizkuntza arloko laguntza-zerbitzua** eskaintzen du.

Zerbitzu horren bidez, euskararen erabilera bultzatu nahi dugu hainbat alderditatik. **ELKAR-EUSKARA**ren bidez, honako hauek egin ditzakezu besteak beste: terminoen eta hiztegiaren kontsultak, idatzi estandarretarako (oharrak, gutunak, inprimakiak eta abar) irizpideak jasotzen dituen estilo-liburua kontsultatu, administrazioko oinarrizko dokumentu-ereduetara sarbidea izan, Internet bidezko prestakuntza-ikastaroak egin eta testu laburrak itzuli, besteak beste.

Zerbitzua erabat **doakoa** da bazkide diren kooperatiba guztientzat. Urtean, gehienez bi orrialdeko 5 agiri itzultzen zaizkio kooperatiba bakoitzari.

Zerbitzura sartzeko [plataforma](#) honen bidez, erabiltzailea eta pasahitza behar dituzu. Datu horiek Nihadek (94 448 00 00 edo itzul@artez.net) emango dizkizu.